g) Lan-baldintzak hobetzea xede duten neurriak aplikatzen ditu. Badu bere hitzarmen kolektiboa, eta horrek hobetu egiten ditu erreferentziako hitzarmen sektorialean finkatutako baldintzak. Badauka II. Prestakuntza Plana, eta bertan prestakuntza-beharrizanen diagnostikoa egin da, kontratu mugagabea duten eta zuzeneko arreta ematen duten langileen gaitasunen ebaluazioan oinarritua. Gogobetetzeari eta erakunde-kulturari buruzko inkestak egiten ditu bi urtean behin.

g) Aplica medidas orientadas a la mejora de las condiciones laborales con un Convenio colectivo propio que mejora las condiciones fijadas en el convenio sectorial de referencia. Cuenta con un II Plan de formación cuyo diagnóstico de necesidades formativas está basado en la evaluación competencial del personal de atención directa con contrato indefinido. Realiza Encuestas de satisfacción y cultura organizacional con carácter bienal.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. K4E8-WDMF-8PZR-A98Z Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) K4E8-WDMF-8PZR-A98Z en www.ebizkaia.eus.

Badauka lan arriskuei aurrea hartzeko bere zerbitzua.

Hitzarmen honek ezartzen dituen beste betebehar batzuei dagokienez, honako hau azpimarratu behar da:

- Erakundeak badauka, gaur egun, Euskara Plana, hitzarmen kolektiboan jasorik dagoena, hain zuzen 23. artikuluan (pertsonen hautaketa, sustapenak eta lekualdaketak) eta 45. artikuluan (euskalduntzea eta hizkuntza-normalizazioa).

- Halaber, 2008tik ezarrita dauka gaitasunen araberako kudeaketa sistema.

Honako hauek egiten ditu:

- 360 graduko lidergo-ebaluazioak zuzendaritzei, koordinazioari, etika batzordeko kideei, lantalde teknikoari eta prozesuetako buruzagiei.
- Laguntzaileen eta coaching-aren garapena.
- Komunikazio eta parte-hartze sistema.

Hitzarmen honetan jasotako sarrera-baldintza eta betebehar guztiak betetzea, eta nork bere burua akreditatzea hitzarmena formalizatzerakoan eta hitzarmenaren indarraldi osoan zehar.

<u>ZAZPIGARRENA</u>.- Elkartearen estatutuek hau xedatzen dute:

*“1. artikulua. <u>Izena</u>.*

*GORABIDE, Adimen Desgaitasuna duten Pertsonen aldeko Bizkaiko Elkartea, 1962ko irailaren 13an eratu zen Asociación Vizcaína Pro-Subnormales izenarekin; herritarren onurarako eta norbanakoen mesederako elkarte gisa aintzatetsita dago. Eusko Legebiltzarrak onetsitako Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritako manuei, estatutu hauei (lege*

Cuenta con Servicio de prevención de riesgos laborales propio.

Respecto a otras obligaciones que establece el presente Convenio cabe destacar que:

- La Entidad cuenta, actualmente, con un Plan de Euskera, recogido en Convenio colectivo artículos 23 (selección de personas, promociones y traslados) y 45 (Euskaldunización y normalización lingüística).

- Asimismo dispone de un sistema de gestión por competencias, implantado desde 2008.

Realiza:

- Evaluaciones de liderazgo 360 grados a direcciones, coordinación, miembros de comité de ética, equipo técnico y líderes de procesos.
- Desarrollo de colaboradores y coaching.
- Sistema de comunicación y participación.

El cumplimiento del conjunto de requisitos de acceso y obligaciones que contempla el presente Convenio debe garantizarse y acreditarse en el momento de formalizar el convenio y a lo largo de todo su periodo de vigencia.

<u>SÉPTIMO</u>.- Los Estatutos de la Asociación disponen:

*“Art. 1. <u>Denominación</u>.*

*GORABIDE, Asociación Vizcaína en favor de las Personas con Discapacidad Intelectual, constituida el 13 de Septiembre de 1.962 bajo la anterior denominación de Asociación Vizcaína Pro-Subnormales, y reconocida como Asociación de “Utilidad Pública” y “Benéfico Particular”, se regirá por los preceptos de la Ley 7/2.007, de 22 de Junio, de Asociaciones, aprobadas por el Parlamento Vasco, por la Ley orgánica 1/2002 de*

Elektronikoki sinatutako dokumentua. K4E8-WDMF-8PZR-A98Z Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) K4E8-WDMF-8PZR-A98Z en www.ebizkaia.eus.

*horren aurka egon ezean), gobernu organoek behar bezala hartutako erabakiei (lege horretan edo estatutuetan ezarritakoaren aurka egon ezean) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen arauzko xedapenei (ordezkoak izango dira) lotuko zaie.*

*22 de marzo reguladora del derecho de asociación, por los presentes Estatutos en cuanto no estén en contradicción con la Ley, por los acuerdos válidamente adoptados por sus órganos de gobierno, siempre que no sean contrarios a la Ley y/o Estatutos, y por las disposiciones reglamentarias que apruebe el Gobierno Vasco, que solamente tendrán carácter supletorio."*

*6. artikulua. Xedeak.*

*Oinarri hauetatik abiatuta: "Adimen urrituak gizarteko kideak direla eta gainerako herritar guztien funtsezko eskubide eurak dituztela", GORABIDE - Adimen Desgaitasuna duten Pertsonen aldeko Bizkaiko Elkartearen xedeak honako hauek dira:*

*- Adimen urrituen gizarteratzea sustatzea, haien bizitzaren etapa guztietan.*

*- Adimen urrituei euren gaitasunak eta bizi-segurtasuna garatzen laguntzea.*

*- Gaigabezia psikikoren bat duten pertsonei lana aurkitzen laguntzea, beraien ahalmenen arabera.*

*" 8. artikulua. Baliabideak.*

*Bere xedeak eta helburuak lortzeko behar diren laguntza zerbitzuak, hezkuntzakoak, lanekoak, gizartekoak eta egoitzak sustatzea edo sortzea."*

*Art. 6. Fines.*

*Partiendo del principio: "La persona con discapacidad intelectual forma parte de la sociedad y tiene los mismos derechos fundamentales que los demás ciudadanos", los fines de GORABIDE, Asociación Vizcaína en favor de las Personas con Discapacidad Intelectual son:*

*Promover la integración social de las personas con discapacidad intelectual, en todas y cada una de las etapas de su vida.*

*- Contribuir al máximo desarrollo de sus capacidades y a su seguridad vital.*

*- Alcanzar la integración laboral de las personas con minusvalías psíquicas, en función de sus posibilidades*

*Art. 8. Medios.*

*Promover o crear, en su caso, servicios asistenciales, educativos, laborales, residenciales y sociales, necesarios y adecuados para el cumplimiento de sus fines y objetivos."*

ZORTZIGARRENA.- Zerbitzu hori Abadiñoko Astola auzoko 66. zenbakian emango da.

OCTAVO El servicio se prestará en el nº 66 del barrio Astola del municipio de Abadiño.

BEDERATZIGARRENA..- Hitzarmen honek eragiten dituen gastuei aurre egiteko nahikoa kreditu dago aurrekontuko partida honetan: Ekonomikoa: 23708; Egitaraua: 231.107; Organikoa: 0303 Proiektuaren zenbakia: 2009/0054, A eranskineko 4. idatz-zatia (hitzarmenaren karatula).

NOVENO.- Para hacer frente al gasto originado por el presente Convenio existe crédito en la partida presupuestaria, Económico 23708, Programa 231.107; Orgánico 0303, Nº de Proyecto 2009/0054, que se indica en el apartado 4 del Anexo A – Carátula del Convenio.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. K4E8-WDMF-8PZR-A98Z Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) K4E8-WDMF-8PZR-A98Z en www.ebizkaia.eus.

Aurrekari horien arabera, bi erakundeek bidezkotzat jo dute lankidetza hitzarmena egitea. Jarraian hitzarmeneko klausulak azalduko dira.

En base a tales antecedentes ambas Entidades consideran oportuno establecer un convenio de colaboración, con arreglo a las siguientes:

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

LEHENENGOA.- XEDEA.

PRIMERA.- OBJETO.

Hitzarmen honen xedea Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren eta Gorabide, Adimen Urritasuna Duten Pertsonen Aldeko Bizkaiko Elkartearen (IFK: G 48078380) (aurrerantzean erakunde laguntzailea) arteko lankidetza harremanak ezartzea da, ATXARTE egoitzan egoitza zerbitzua eskaintzeko adimen urritasuna duten pertsonei.

El presente convenio tiene por objeto establecer las relaciones de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia, Departamento de Acción Social y Gorabide - Asociación Vizcaína en favor de las Personas con Discapacidad Intelectual (NIF: G 48078380) en adelante Entidad Colaboradora, para la prestación de un servicio residencial en la residencia ATXARTE.

BIGARRENA.- HITZARMENAREN ARAUBIDE JURIDIKOA.

SEGUNDA.- RÉGIMEN JURÍDICO DEL CONVENIO.

Hitzarmen hau administratiboa da eta bertan xedatutakoari ez ezik, zuzen edo zeharka aplika daitezkeen Administrazio Zuzenbideko arauei ere lotu behar zaie.

El presente Convenio tiene naturaleza administrativa y se regirá, ademá

s de por lo dispuesto en el mismo, por las normas de Derecho Administrativo que, directa o por analogía, pudieran resultar de aplicación.

Hain zuzen, jarraian adieraziko diren testuetan xedatutakoa aplikatu behar da:

En particular, resulta aplicable lo dispuesto en:

1. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
2. 12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Eusko Legebiltzarrarena, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
3. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa.
4. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.

1. La Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
2. La Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.
3. Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi.
4. Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. K4E8-WDMF-8PZR-A98Z Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) K4E8-WDMF-8PZR-A98Z en www.ebizkaia.eus.

5.5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko 5/2006 Foru Arauaren Testu Bategina onetsi duena.

6.5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, abenduaren 3koa, Aurrekontuei buruzko 5/2006 Foru Arauaren Testu Bategina onetsi duena.

7.Bizkaiko Lurralde Historikoko kasuan kasuko urteko aurrekontu orokorrari buruzko foru araua.

8.3/1987 Foru Araua, otsailaren 13koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzkoa.

9.1/2016 Foru Araua, otsailaren 17koa, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoa.

10.169/2014 Foru Dekretua, abenduaren 16koa. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi orokorra onesten da, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duena.

11.Ezinduentzako eguneko arreta zerbitzuen sistema orokorrari buruzko foru arautegia.

5. Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral Presupuestaria 5/2006.

6. Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Norma Foral Presupuestaria 5/2006.

7. La Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia del año correspondiente.

8. Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.

9. Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

10. Decreto Foral 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria

11. Normativa foral reguladora del sistema general de acceso a los servicios de centros de día destinados a personas con discapacidad

## <u>HIRUGARRENA</u>. ZERBITZUAREN DEFINIZIOA ETA KOKAPENA.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroei buruz dakartzan gainerako aurreikuspenen esparruan, zentro horiek elkarbizitza-zerbitzuak eskaintzen dituzte, alegia, ohiko etxebizitza nahiz etxebizitza iraunkorra eta, hala behar denean, aldi baterako etxebizitza, desgaitasuna eta mendekotasuna dituzten pertsonentzat, ezin badituzte euren

## <u>TERCERA:</u> DEFINICIÓN DEL SERVICIO Y UBICACIÓN

En el marco del resto de previsiones del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales respecto a los centros residenciales para personas con discapacidad, estos centros ofrecen servicios de convivencia destinados a servir de vivienda habitual o permanente y, en su caso, temporal, a personas con discapacidad y en situación de dependencia, que no pueden satisfacer adecuadamente sus

Elektronikoki sinatutako dokumentua. K4E8-WDMF-8PZR-A98Z Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) K4E8-WDMF-8PZR-A98Z en www.ebizkaia.eus.

beharrizanak modu egokian ase euren etxean edo familiarenean.

necesidades en su domicilio personal o familiar.

Zerbitzu hau (izendazioa, titulartasuna eta ezaugarriak gorabehera) A eranskineko 2. idatz-zatian (hitzarmenaren karatula) adierazitako higiezinean egingo da.

La prestación del presente Servicio se realizará en el inmueble indicado en el apartado 2 del Anexo A – Carátula del Convenio, cualquiera que sea su denominación, titularidad o características que preste.

LAUGARRENA.- ZERBITZUAREN EDUKIERA, EGUNAK ETA URTEKO ORDUTEGIA.

CUARTA.- CAPACIDAD, DÍAS Y HORARIO ANUAL DEL SERVICIO.

Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa hartu du A eranskineko 5. idatz-zatian (hitzarmenaren karatula) zehaztutako plaza kopurua betetzeko.

La Diputación Foral de Bizkaia se compromete a la cobertura de las plazas indicadas en el apartado 5 del Anexo A – Carátula del Convenio.

Zerbitzua A eranskineko 6. idatz-zatian (hitzarmenaren karatula) adierazitako egunetan egongo da irekita.

El Servicio permanecerá abierto durante los días anuales que se indican en el apartado 6 del Anexo A – Carátula del Convenio.

BOSGARRENA.- HITZARMENAREN PREZIOA, GEHIENEZ.

QUINTA. PRECIO MÁXIMO DEL CONVENIO.

1. B eranskinean, Azterlan Ekonomikoa, jasota dagoen sarreren eta gastuen aurrekontuaren arabera Bizkaiko Foru Aldundiak, Gizarte Ekintza Sailak, pertsona erabiltzaile bakoitzeko aleko gehieneko prezioa eta A eranskineko, Hitzarmenaren karatula, 8 eta 9 idatz-zatietan adierazi den gehieneko prezioa ezartzen ditu.

1. De acuerdo con el presupuesto de Ingresos y Gastos recogidos en el Anexo B- Estudio Económico, la Diputación Foral de Bizkaia – Departamento de Acción Social fija el precio precio plaza día por persona usuaria y el precio máximo del Convenio indicados en los apartados 8 y 9 del Anexo A – Carátula del Convenio.

1. Burutzapenaldia eta plaza kopurua kontuan hartuz, hitzarmenen gehieneko prezioa A eranskineko 9. idatz-zatian (hitzarmenaren karatula) zehaztutako kopurua da.

2. En atención al plazo de ejecución y al número de plazas, el precio máximo del convenio asciende a la cantidad que se indica en el apartado 9 del Anexo A – Carátula del Convenio.

3. Kopuru horren barruan sartzen dira zerbitzuei atxikitako gastu guztiak eta aplikagarriak diren zerga eta tasa guztiak.

3. En dichas cifras se entienden incluidos todo tipo de gastos inherentes a los servicios y cuantos impuestos, tributos y tasas fueran aplicables.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. K4E8-WDMF-8PZR-A98Z Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) K4E8-WDMF-8PZR-A98Z en www.ebizkaia.eus.

SEIGARRENA. HELBURUAK: XEDE NAGUSIA.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan ezarritakoaren esparruan, desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroek laguntza maila indibidualizatuak bermatzen dituzte, pertsonen beharrizan aldakorrei egokituak; eta, horretarako, arlo anitzeko profesionalek osatutako lantaldearen laguntza jasotzen dute. Langile horiek ezaugarri egokiak dituzte ongizate fisikoa, psikologikoa eta soziala helburu duen arreta emateko.

Haren jardunaren helburuak hauexek izango dira:

1. Erabiltzaileen ongizate fisikoa eta emozionala hobetzea.
2. Autonomia pertsonala mantentzea, pertsonaren garapena bultzatzea eta gainbehera ekiditea, posible den heinean.
3. Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko behar den laguntza pertsonala eta zainketak bermatzea.
4. Erabiltzailearen garapen pertsonala sustatzea, bai eta gaitasun eta ahalmen pertsonal eta sozialak, eta bere kabuz pentsatzeko eta jarduteko ahalmena ere.
5. Aukerak ematea autuak egiteko eta bere erabakiak hartzeko, bere bizitza pertsonalaren proiektuari eta eguneroko bizitzari dagokienez.
6. Senideen arteko eta gizarteko sareen iraupena eta indarra sustatzea.
7. Segurtasun sentipena eragitea.

SEXTA: OBJETIVOS: FINALIDAD GENERAL

En el marco de lo previsto en el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, los centros residenciales para personas con discapacidad garantizan niveles de apoyo de carácter individualizado y adaptados a las necesidades cambiantes de las personas, y para ello cuentan con el apoyo de un equipo multidisciplinar de profesionales con los perfiles idóneos para prestar una atención orientada al bienestar físico, psicológico y social.

En este contexto, todas sus actuaciones irán encaminadas a:

1. Mejorar el bienestar físico y emocional de las personas usuarias.
2. Mantener la autonomía personal y, en lo posible, fomentar su desarrollo y evitar su deterioro.
3. Garantizar los cuidados y la asistencia personal necesaria para realizar las AVD.
4. Potenciar el desarrollo personal, las capacidades, habilidades y competencias personales y sociales, sus posibilidades de pensamiento y actuación de modo independiente.
5. Ofrecerles oportunidades para elegir y tomar decisiones relacionadas con su proyecto de vida personal así como con su vida cotidiana.
6. Promover el mantenimiento y reforzamiento de las redes familiares y sociales.
7. Favorecer un sentimiento de seguridad.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. K4E8-WDMF-8PZR-A98Z Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) K4E8-WDMF-8PZR-A98Z en www.ebizkaia.eus.



Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioarako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

ZAZPIGARRENA.- ZERBITZUAREN JASOTZAILEAK

Zerbitzu hau adimen urritasuna duten eta autonomia maila desberdinak dituzten pertsonei zuzenduta dago:

- desgaitasun-maila % 33koa edo altuagoa izatea, eta
- Mendekotasuna baloratzeko baremoak (MBB) mendetasun-egoeran dagoen pertsona gisa baloratuak, I., II. edo III. mailakoak. Hala ere, salbuespen gisa, baliabide hori eskuratu ahal izango da mendetasun-maila hori izan gabe, baldin eta gainerako baldintzak betetzen badituzte eta hori justifikatzen duten arrazoi erabakigarriak badaude.

Hala, Zorroari buruzko Dekretuan aurreikusirik dagoen profilaz gain, beste pertsona batzuk ere sartu ahal izango dira zerbitzuan, Sailaren iritziz hala eska dezaketenak, eta desgaitasuna duten pertsonak egoitza-zentroetan sartzea arautzen duen gainerako araudiak ezartzen dituen baldintza orokorrak ere bete beharko dituzte.

Arestion aipatu diren baldintza horiek guztiak eskabidea egiten den unean bete beharko dira, eta pertsona zentroan dagoen bitartean mantendu beharko dira.

ZORTZIGARRENA.- ZERBITZUARI DAGOZKION FUNTZIOAK ETA PRESTAZIOAK.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan zerbitzuaren eginkizun eta prestazioei buruz aurreikusitakoaz gain, ondorio guztietarako oinarrizkotzat jotzen dira ondoren zehazten diren eduki eta prozesuak dituzten zerbitzu-unitate hauek:

SEPTIMA- PERSONAS DESTINATARIAS DEL SERVICIO

Este Servicio está dirigido a personas con discapacidad intelectual y con distintos niveles de autonomía:

- con una discapacidad mayor o igual a un 33% y
- Valoradas como persona en situación de dependencia por el por el Baremo de Valoración de Dependencia (BVD) con grado I, II o III. No obstante, de forma excepcional, se podrá acceder a este recurso sin necesidad de dicho grado de dependencia siempre que cumplan el resto de requisitos y existan causas determinantes que lo justifiquen.

Asi, además del perfil previsto en el Decreto de Cartera, podrán acceder al servicio otras personas que, a juicio del Departamento puedan requerirlo, que deberán cumplir también los requisitos generales que establezca el resto de la normativa reguladora del acceso a los centros residenciales para personas con discapacidad.

El conjunto de los requisitos anteriormente relacionados deberán ser cumplidos en el momento de la solicitud y mantenerse durante todo el tiempo que permanezca en el centro.

OCTAVA.-FUNCIONES Y PRESTACIONES DEL SERVICIO.

Además de lo previsto en el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, respecto a las funciones y prestaciones del servicio, a todos los efectos se consideran básicas las siguientes unidades de servicio con los contenidos y procesos que, a continuación, se detallan:

Elektronikoki sinatutako dokumentua. K4E8-WDMF-8PZR-A98Z Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) K4E8-WDMF-8PZR-A98Z en www.ebizkaia.eus.

| ZERBITZU UNITATEAK | GAKO PROZESUAK ETA EDUKIAK | UNIDADES DE SERVICIO | CONTENIDOS Y PROCESOS CLAVE |
|---|---|---|---|
| OINARRIZKO ARRETA PERTSONALEN ZERBITZUA | Ezinduen oinarrizko ongizaterako egin behar diren jarduerak. Jarduerak: garbiketa, higienea eta atontze pertsonala, elikadura, medikazioa, lekualdaketetan laguntzea, etab. Horretarako:<br><br>★ Erabiltzaile bakoitzaren "Banakako sustapenerako profila" beharrezkoa da, oinarrizko alderdi pertsonal guztiei buruzkoa (elikadura, garbiketa, osasuna, janzkera, esfinterraren erabilpena, loa eta atsedena, laguntza teknikoen erabilpena, osasun eta botika beharrak, jarrera eta joan-etorrien kontrola, eta abar), zuzeneko arretako profesionalaren esku-hartzea orientatzeko erabiltzaileekiko harremanetan, eta prozesu horien erregistroak. Erregistro horiek urtean behin berrikusi beharra dago, gutxienez.<br><br>★ Zuzeneko arretaren jarduera erregistratzeko sistema egongo da, hala profesional guztien eta familien arteko koordinazioa lortzeko nola zuzeneko arreta eta jaramonaren laguntza profilak etengabe hobetzeko helburura iristeko.<br><br>★ Zuzeneko arretako langileek laguntza teknikoak zuzen erabiltzen jakingo dute.<br><br>★ Zuzeneko arretako langileek larrialdietan izan beharreko jokabidea jakingo dute, suteetan, gasen ihesetan... | SERV. CUIDADOS PERSONALES BÁSICOS | Actividades necesarias para la obtención y mantenimiento del bienestar básico de la persona discapacitada. Actividades de: aseo, higiene y arreglo personal, alimentación, medicación, apoyo en movilidad, etc.<br>Para ello:<br><br>★ Habrá de contarse con un "*Perfil de Apoyos Individualizado*" de cada persona usuaria, referido a todos los aspectos personales básicos (nutrición, aseo, salud, vestido, evacuación esfinteriana, sueño y reposo, utilización de las ayudas técnicas, necesidades sanitarias y farmacológicas, control postural y traslados, etc.), que oriente la intervención del profesional de atención directa en su interrelación con las personas usuarias, así como los registros necesarios de dichos procesos, con una revisión mínima anual.<br><br>★ Se dispondrá de un sistema de registro de la actividad de atención directa tanto con el objetivo de coordinación entre los diferentes profesionales y con la familia, así como con el objetivo de la mejora continua de los perfiles de apoyo de atención directa.<br><br>★ Los y las profesionales de atención directa conocerán el manejo correcto de las ayudas técnicas.<br><br>★ Los y las profesionales de atención directa conocerán las pautas de actuación en los casos de emergencia: fuego, fuga de gases, etc. |

Elektronikoki sinatutako dokumentua. K4E8-WDMF-8PZR-A98Z Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) K4E8-WDMF-8PZR-A98Z en www.ebizkaia.eus.



Bizkaia foru aldundia diputación foral
herri administrazioarako eta erakunde harremanetarako saila
departamento de administración pública y relaciones institucionales
idazkaritza orokorra / secretaría general

| | | | |
|---|---|---|---|
| AISIA ETA ASTIALDIKO ZERBITZUA | Norberaren garapena eta ondo pasatzea helburu duten jarduerak, aisialdiaren bidez, kirolaren bidez, eta abar, ongizate emozionala areagotzeko.<br>Horretarako:<br><br>★ Aisialdirako eta ondo pasatzeko jarduerak egitea ahalbidetuko da.<br>★ Jarduketa politikak egongo dira, argi ezarrita egongo direnak, aisialdiko jardueretan, lagunen eta senideen bisitetan eta abarretan boluntarioen parte hartzea sustatuko dutenak. | SERV. DE OCIO Y TIEMPO LIBRE | Actividades cuya razón de ser es el disfrute y desarrollo personal a través de momentos de ocio, esparcimiento, actividades deportivas, etc., que proporcionen un mayor grado de bienestar emocional.<br>Para ello:<br>★ Se desarrollarán programas teniendo en cuenta sus gustos y preferencias y soportados por escrito<br>★ Exisitirán políticas de actuación, claramente establecidas, que favorezcan la participación de voluntarios/as en actividades de ocio, las visitas de amigos/as y familiares, etc. |
| ZERB. TEKNIKO ESPEZIALIZATUAK | Erabiltzaileak edota haren familiak gai jakinetatik laguntza zehatza behar duten arloetan aldi baterako tratamenduak edo tratamendu iraunkorrak, erabiltzailearekiko esku hartze pertsonaleko arloetan zein beste profesional batzuekiko koordinazioan.<br>Horretarako:<br><br>★ Erabiltzaileen banakako planifikazio-saioetan laguntza eta/edo koordinazioa, pertsonak ardatz hartuta.<br>★ Kasu bakoitzean, espezialistek idatziz zehaztuko dute erabiltzaile bakoitzarentzat berariazko sustapenik egin beharrik dagoen, intentsitatea, maiztasuna...<br>★ "Praktika oneko eskuliburua" egongo da portaera arazoetan eta esku-hartze egokietan.<br><br>★ Erabiltzaile bakoitzak eguneratutako espedientea egongo da, erabiltzaile bakoitzaren osasun, familia, pertsona alderdiak, eta portaera, gustu... arazoak, eta banakako sustapen profilak agertzeko. | SERV. TÉCNICOS ESPECIALIZADOS | Tratamientos de carácter temporal o permanente en aquellas áreas en las que la persona usuaria precise una intervención concreta desde las distintas disciplinas, tanto en tareas de intervención personal con la persona usuaria, como de coordinación de otros/as profesionales.<br>Para ello:<br><br>★ Apoyo y/o Coordinación de las sesiones de Planificación centrada en las personas.<br>★ Los/as especialistas concretos en cada caso, determinarán por escrito la necesidad o no de realizar apoyos específicos para cada persona usuaria, intensidad, frecuencia, etc.<br>★ Se contará con un "Manual de Buena Práctica" en materia de problemas de conducta e intervenciones adecuadas.<br>★ Se dispondrá de un expediente actualizado por cada persona usuaria, donde se reflejen todos los aspectos médicos, familiares, personales, problemas de conducta, gustos, etc. de cada persona usuaria, así como los perfiles de apoyo individual. |
| ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIO ZERB. | Zentroa zuzentzeko, administratzeko eta kudeatzeko jarduerak.<br><br>Horretarako:<br><br>★ Zerbitzuan estilo eskuliburu bat egongo da, erabiltzaileen intimitatea eta pribatutasuna babesteko.<br><br>★ Zerbitzuak segurtasuneko eta larrialdietarako eskuliburua edo plana edukiko du.<br><br>★ Zerbitzuak ebakuazio plana eduki | SERV. DIRECCIÓN Y ADMINISTRACIÓN | Actividades que impliquen tareas de dirección, administración y gestión del Centro.<br><br>Para ello:<br>★ El servicio dispondrá de un Manual de Estilo que defienda la intimidad y privacidad de la persona usuaria.<br><br>★ El servicio dispondrá de un Manual o Plan sobre Seguridad y Emergencias.<br><br>★ El servicio dispondrá de Plan de |

Elektronikoki sinatutako dokumentua. K4E8-WDMF-8PZR-A98Z Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) K4E8-WDMF-8PZR-A98Z en www.ebizkaia.eus.

| | | | |
|---|---|---|---|
| | behar du, indarreko dagoen araudia betetzen duena, eta eraikinak ebakuatzeko praktikak egingo dira<br><br>.<br>★ Familiarekiko harremanak suspertzeko neurriak ezarriko dira, bai erabiltzailearekiko harremanetarako, bai zerbitzua ematen duen erakundearekiko harremanetan, eta erakundean parte hartzeko. Gutxienez ere harreman pertsonal edo talde-harreman bat ezarriko da urtean.<br><br>★ Galdera-sorta laburra egingo da (orrialde bakarrekoa) familiak pozik dauden jakiteko.<br><br>★ Erabiltzaile gehiago hartzeko plan estandarizatua egongo da.<br><br>★ Langile gehiago hartzeko plan estandarizatua egongo da.<br><br>★ Zentroko urtebeteko plan laburra egongo da, lortu beharreko helburu zehatzekin.<br><br>★ Zerbitzuak kexa-protokoloa eta iradokizunen postontzia izango ditu erabiltzaileentzat.<br><br>★ Zerbitzuak Eskubide eta Betebeharren Gutuna izango du erabiltzaileentzat eta haien familientzat.<br><br>★ Zerbitzuak langileen prestakuntza plana izango du. | | Evacuación, conforme a la normativa en vigor y se realizarán habitualmente prácticas de evacuación de los edificios.<br><br>★ Se articularán medidas que promuevan la relación de las familias, tanto con las propias personas usuarias, como con el Centro de Día y su participación en el mismo, estableciéndose una relación personal o grupal al año como mínimo.<br><br>★ Se articulará una breve encuesta (de satisfacción a las familias.<br><br>★ Se dispondrá de un plan estandarizado de acogida para nuevas personas usuarias.<br><br>★ Se dispondrá de un plan estandarizado de acogida para nuevos/as profesionales.<br><br>★ Se dispondrá de un breve Plan anual de centro con los objetivos concretos a lograr.<br><br>★ El servicio dispondrá de un Protocolo de Quejas y Buzón de Sugerencias para las personas usuarias.<br><br>★ El servicio dispondrá de una Carta de Derechos y Deberes para las personas usuarias y sus familias.<br><br>★ El servicio dispondrá de un Plan de Formación del Personal. |
| ELIKADURAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK | Zentroan bizi direnen elikaduraren inguruko jarduerak.<br><br>Horretarako:<br><br>★ Zentroak asteroko menuak deskribatu behar ditu.<br>★ Inguruak egoera egokian egon behar du elikaduran, osasunean, higienean eta segurtasunean, zentroko toki guztietan. | SERV. HOSTELEROS DE ALIMENTACIÓN | Actividades relacionadas con la alimentación de las personas usuarias del Centro.<br><br>Para ello:<br><br>★ El Centro ha de tener elaborada una descripción semanal de los menús.<br>★ Se han de mantener las condiciones correctas del entorno en materia de alimentación, salud, higiene y seguridad en todas las dependencias del Centro. |

Elektronikoki sinatutako dokumentua. K4E8-WDMF-8PZR-A98Z Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) K4E8-WDMF-8PZR-A98Z en www.ebizkaia.eus.

| | | | |
|---|---|---|---|
| BESTELAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK | Zentroa garbitzeko eta mantentzeko jarduerak.<br>Horretarako:<br>★ Gela, logela eta jantokietan garbiketa egingo da erabiltzaileak beste toki batean daudenean.<br>★ Laguntza teknikoak egoera onean egoteko errutinak egongo dira. | OTROS SERVICIOS HOSTELEROS | Actividades de limpieza y mantenimiento del Centro.<br>Para ello:<br>★ Se mantendrá la separación espacio – tiempo en el desempeño de las tareas de limpieza y la presencia de personas usuarias en las salas, habitaciones y comedores.<br>★ Se contará con rutinas para el mantenimiento de las ayudas técnicas en óptimas condiciones. |

<u>BEDERATZIGARRENA</u>. - ERABILTZEKO ARAUBIDEA.

1. BEDERATZIGARRENA. - ERABILTZEKO ARAUBIDEA.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak zehaztuko du itxaron-zerrendan dauden pertsonak aukeratzeko sistema eta erabiltzaileen profila.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak plaza itunduak eskuratzeko sistema bat ezarriko du eta eskatzaileak egokiak diren erabakiko du.

Zerbitzua egiten laguntzen duen erakundeak parte hartuko du hautapen-prozesuan, bai eta Foru Aldundiak beharrezkotzat jotzen duten erakunde guztiek ere. Ebazpena Aldundiak emango du.

Erakunde laguntzaileak Bizkaiko Foru Aldundiko Gizate Ekintza Sailak aurrean aipatutako prozesua burututakoan zehazten duen hurrenkeran eta berak finkatzen dituen epeetan onartuko ditu erabiltzaileak.

2. EGOKITZEA.

Erabiltzailea zerbitzura ohitu dadin, hiru (3) hilabeteko epea emango zaio hasieran bertara sartzen den egunetik zenbatzen hasita eta beste hiru (3) hilabetez luza daitekeena. Epealdi

<u>NOVENA</u>. - RÉGIMEN DE UTILIZACIÓN.

1. DESIGNACIÓN DE LAS PERSONAS USUARIAS.

La Diputación Foral de Bizkaia – Departamento de Acción Social determinará el sistema de acceso y perfil de persona usuaria para la selección de los/as candidatos/as entre las personas incluidas en las correspondientes listas de espera.

El Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia determinará el sistema de ocupación de las plazas convenidas y la idoneidad de las personas demandantes .

La entidad colaboradora, que coopera en la provisión del servicio, participará en este proceso de selección así como cualquier otro organismo que la Diputación Foral considerase pertinente, siendo a esta última a quien compete la resolución del ingreso.

La Entidad colaboradora procederá a la admisión de las personas usuarias en el orden y plazos que la Diputación Foral de Bizkaia – Departamento de Acción Social le comunique como resultado del proceso señalado.

2. ADAPTACIÓN.

Se considera un período inicial de adaptación al servicio de tres (3) meses, prorrogables motivadamente por otros tres (3), contados a partir de la fecha de su incorporación al mismo.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. K4E8-WDMF-8PZR-A98Z Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) K4E8-WDMF-8PZR-A98Z en www.ebizkaia.eus.

horretan zerbitzua eskaintzen duen erakundeak txosten arrazoitua igorri beharko dio Bizkaiko Foru Aldundiari, erabiltzailearenganako arreta ezarri diren baldintzetan ezin betetzea zerk eragin duen azaltzeko. Hala eta guztiz ere, Gizarte Ekintza Sailak hartzen duen erabakia, dena delakoa ere, loteslea izango da.

Durante este plazo la Entidad Colaboradora para la prestación del servicio deberá comunicar formalmente a la Diputación Foral de Bizkaia mediante informe motivado, cualquier circunstancia que impida o altere la atención a la persona usuaria en las condiciones establecidas. No obstante será vinculante la resolución motivada que al respecto adopte el Departamento de Acción Social.

Era berean, eta pertsona erabiltzailea zerbitzuan sartu ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak, kasuan-kasuan zehazten diren zerbitzu teknikoen bitartez, eta entitate kolaboratzaileak eskainitako zerbitzuaren jarraipena egingo dute. Jarraipen horren emaitza gisa, Bizkaiko Foru Aldundiak edota entitate kolaboratzaileak zerbitzuaren funtzionamendua hobetuko duten aldaketak sartzea proposatu ahal izango dute, edota hasieran ezarritakoak ez beste zerbitzu batzuk, erabiltzaileen beharrak hobeto asetuko dituztenak, eskaini behar liratekeela adierazi.

Asimismo, y una vez producida la incorporación de la persona usuaria al servicio, la Diputación Foral de Bizkaia, a través de los servicios técnicos que, en su momento, se determinen, y la entidad colaboradora realizarán el seguimiento del servicio prestado. Como resultado de este seguimiento, la Diputación Foral de Bizkaia y/o la entidad colaboradora podrán proponer la necesidad de introducir modificaciones en el funcionamiento del servicio y/o indicar la conveniencia de ofrecer servicios alternativos a los inicialmente dispuestos que se estimen más adecuados a las necesidades de las personas usuarias.

3. PLAZAREN ERRESERBA ETA GORABEHERAK.

Plaza erreserbatzeagatik Bizkaiko Foru Aldundiak A eranskineko 8. idatz-zatian (hitzarmenaren karatula) ezarritako prezioaren %75 ordainduko du; ondoko kasuetan ulertuko da plaza erreserbatu dela:

1. <u>Oporrak.</u>

Onuradunek hilabeteko oporrak izan ditzakete udan eta hamabost egunekoak Gabonetan eta Aste Santuan; oporraldi horietan plaza erreserbatuko zaie.

Hala gertatzen denean, erabiltzaileak plazaren prezio publikoaren %40 besterik ez du ordainduko.

3. RESERVA DE PLAZA E INCIDENCIAS.

La Diputación Foral de Bizkaia abonará en concepto de reserva de plaza el 75% del precio especificado en el apartado 8 del Anexo A – Carátula del Convenio, entendiendo que existe reserva de plaza en los siguientes casos:

1. <u>Vacaciones.</u>

Las personas beneficiarias podrán disfrutar de un mes de vacaciones en el periodo estival y de quince días tanto en Navidad como en Semana Santa, pudiéndose ausentar del centro y reservándoseles la plaza.

En este supuesto la persona usuaria sólo abonará el 40 por 100 del precio público correspondiente.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. K4E8-WDMF-8PZR-A98Z Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) K4E8-WDMF-8PZR-A98Z en www.ebizkaia.eus.

2. Ospitaleko ingresuak.

Osasun zentro batean ingresatu behar duelako ezin daitekeenean egoitzan egon, erabiltzaileak prezio publikoaren %20 baino ez du ordainduko.

Bi kasuetan pertsona onuradunak dokumentazio egiaztatzailea aurkeztu beharko du; dokumentazio horren bidez zentroko ausentzia bidezkotu beharko da, hala oporrengatik nola osasun zentro baten ingresatzeagatik.

Erakunde laguntzaileak egutegiko 30 egun lehenago eman behar du oporretan irtengo diren pertsonen berri.

Ahal dela plaza horiek atsedenaldikoei emango zaizkie. Erreserban dagoen plaza bat beste erabiltzaile batek betetzen badu zaintzaileen atsedenerako, plaza horren titularrak utzi egingo dio dagokion prezio publikoa ordaintzeari eta Aldundiak Hitzarmenaren A eranskineko 8. idatz-zatian ezarri den prezioa orainduko du.

Atsedenari dagokionez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak atseden-zerbitzuaren inguruan ezarritakoa beteko da.

Erakunde laguntzaileak erabiltzaileen altak, baxak eta gorabeherak jakinarazi behar dizkio Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari gertatu eta hiru egun pasatu baino lehen. Erakunde laguntzaileak betebehar hori betetzen ez badu, bera izango da ondorio ekonomikoen erantzulea.

Bizkaiko Foru Aldundiak Gizarte Ekintza Sailak ebazpena jakinaraziko dio erakunde laguntzaileari. Ebazpen horretan egoitzan alta jasoko duten pertsona erabiltzaile guztien ingresoko baldintzak azalduko dira..

2. Ingresos hospitalarios.

En los casos de ausencia obligada por Ingreso en Centros Sanitarios, la persona usuaria únicamente abonará el 20 por 100 del precio público correspondiente.

En todos los casos la persona beneficiaria deberá aportar documentación acreditativa mediante la cual se justifique la ausencia del centro, bien sea por vacaciones o por ingreso en Centros Sanitarios.

La Entidad Colaboradora deberá enviar la relación de las personas usuarias que van a disfrutar de vacaciones con 30 días naturales de antelación.

Se fomentará la cobertura de estas plazas vacantes mediante la selección de candidatos/as para respiro. En el supuesto de que una plaza en situación de reserva se ocupe por una de respiro, la persona titular de la plaza dejará de abonar el precio público que le corresponda y la Diputación abonará el precio especificado en el apartado 8 del anexo A del convenio.

En lo relativo al respiro se estará a lo previsto en el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales respecto al servicio de respiro.

La Entidad Colaboradora comunicará a la Diputación Foral de Bizkaia - Departamento de Acción Social en el plazo de tres días hábiles, contados a partir de la fecha de la incidencia, las altas, bajas o ausencia de las plazas de las personas usuarias atendidas. Si la Entidad incumpliera esta obligación, será responsable de los efectos económicos que pudieran derivarse de este incumplimiento.

La Diputación Foral de Bizkaia – Departamento de Acción Social notificará a la Entidad Colaboradora la resolución en la que consten las condiciones de ingreso de cada persona usuaria que cause alta en el servicio.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. K4E8-WDMF-8PZR-A98Z Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke. www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) K4E8-WDMF-8PZR-A98Z en www.ebizkaia.eus.

4. ESKUBIDEA ETEN ETA AZKENTZEKO ARRAZOIAK ETA ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ARAUBIDEA.
